



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 12a

67. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

#### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri egokiak har ditzan landa-eremuko eskolak hezkuntza-erakunde gisa mantentzeko, beren antolamendu-egitura heterogeneo eta bereziarekin, bai eta beharrezkoak diren baliabideak libera ditzan eskola horiek eratzen dituzten eskola-unitateen sarea mantentzeko eta ezartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da apustu egin dezan baliabide berekien optimizatzean oinarritutako egiturazko neurrien alde, bai azpiegiturei eta ekipamenduei bai giza baliabideei dagokienez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan itxarote-zerrendak murrizte aldera. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri eraginkorrak har ditzan, etxeko langile gisa lan egiten duten pertsonak abusuzko jardunbideetatik babesteko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta etxeko langileen lan duinari buruzko 201. Gomendioa berrets ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Ebro ibaiaren eta bere ibaiadar Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares, Queiles eta Odrónen ibilguen egiazko egoerari buruz. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak tortura baztertzen du eta Espainiako Gobernua premiatzen du salbuespenezko legedia, atxiloteta inkomunikatua eta babesgabetasun-egoerak ahalbidetzen dituen, indargabetu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Defentsa Ministerioarekin negoziatzean, Ezkabako gotorlekuaren jabea den aldetik, horren erabilera lagatzea edo dohaintzan ematea. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da prostituziora bideratutako emakumeen eta hauren trafikorik gabeko hirien sarea sar dadin Foru Komunitatea. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (8. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Ezkabako presoek hilotzak lurpetik ateratzen lagun dezan eta lan-mahai bat eratzea bultzatzen dezan, gotorlekua Nafarroari itzultzeko. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzardeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizainek sendagaiak erabiltzeari eta agintzeari buruzko foru dekretu bat egin dezan. Osasun Batzardeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasuko Josefina Arregui Klinika espezializatuaren funtsezko lana aintzatetsi dezan. Osasun Batzardeak onetsia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebro ibaia garbitzeko beharrezkoak diren baimenak bizkor ditzan, ikusita Tuterako ureztatzaile-elkarteek bizi duten arazoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premiatzen dira Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuaren egoera konpontzera bideratutako neurriak har ditzaten. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri egokiak har ditzan landa-eremuko eskolak hezkuntza-erakunde gisa mantentzeko, beren antolamendu-egitura heterogeneo eta bereziarekin, bai eta beharrezkoak diren baliabideak libera ditzan eskola horiek eratzen dituzten eskola-unitateen sarea mantentzeko eta ezartzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri egokiak har ditzan landa-eremuko eskolak hezkuntza-erakunde gisa mantentzeko, beren antolamendu-egitura heterogeneo eta bereziarekin, bai eta beharrezkoak diren baliabideak libera ditzan eskola horiek eratzen dituzten eskola-unitateen sarea mantentzeko eta ezartzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri egokiak har ditzan landa-eremuko eskolak hezkuntza-erakunde gisa mantentzeko, beren antolamendu-egitura heterogeneo eta bereziarekin, bai eta beharrezkoak diren baliabideak libera ditzan eskola horiek osa-

tzen dituzten eskola-unitateen sarea mantentzeko eta ezartzeko, eta, halaber, joan den legegintzaldian hartutako erabakia, zioen azalpenean aipatzen dena, bete dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du landa-eremuko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako geleei euts diezaie, haien iraupena gutxieneko ikasle-kopuru baten bidez mugatu gabe, era horretan bermatuz biztanle gutxiko udalerrietan iraun dezaten, erreferente soziala izan daitezen eta landa-eremuko biztanle-kopuruari eusteko aukera eman dezaten. Landa-eremuko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoei behar adinako giza baliabideak eta baliabide ekonomiko eta teknikoak emanez, irakaskuntzaren kalitate maila egokiak eskaini ahal izan ditzaten".

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da apustu egin dezan baliabide berekien optimizatzean oinarritutako egiturazko neurrien alde, bai azpiegiturei eta ekipamenduei bai giza baliabideei dagokienez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan itxarote-zerrendak murrizte aldera.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da apustu egin dezan baliabide berekien optimizatzean oinarritutako egiturazko neurrien alde, bai azpiegiturei eta ekipamenduei bai giza baliabideei dagokienez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan itxarote-zerrendak murrizte aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehentasunezko apustua egin dezan baliabide berekien optimizatzean oinarritutako egiturazko neurrien alde; bai azpiegiturei eta ekipamenduei, bai giza baliabideei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko Foru Legea alda dezan, halako moduan non itxaronaldiak prozesuei eta patologiei egokituko baitzaizkie, beste leheneste-sistema bat ezarri; eta lehen kontsultez eta kirurgia-operazioez gain aurrerantzeko kontsultak edo azterketa medikoak sartuko baitira.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiatu egiten duela peonada deritzenen bidez profesionalen lanaldia ohiko lanalditik kanpo luzatzea, salbu eta egoera oso zehatz eta salbuespenekoetan, beste modu batera konpondu ezin direnak. Halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak har ditzan horien ezarpena ekiditeko. Horrek esan nahi du langileen kudeaketari buruzko neurriak hartu behar direla Funtzio Publikoarekin batera, sindikatuekin aldeztu hitz egin eta adostuta, zertarako eta:

a. Ohiko lanaldian goizeko eta arratsaldeko txandak ezartzeko, kontsulta eta kirurgia zerbitzuetan.

b. Kontratazio-baldintza duinak bermatzeko, profesionalak kontratatu eta fidelizatzea ahalbidetuko dutenak, bereziki eskualde-ospitaleetan.

c. Zerbitzuak zentro ezberdinen artean berrantolatatu ahal izateko, zenbait espezialitate eta zerbitzutako beharrezko erantzute aldera.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, arestian esandakoa dela-eta, xeheki azter ditzan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren organigrama eta plantilla, epe motzeko, ertaineko eta luzeko gabeziak detektatzeko, estamentuz estamentu eta zerbitzuz zerbitzu, langile arloko beharrezkoak diren lan-eskaintza publikoak planifikatuz.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zentro pribatuarentzako desbideratzeak muga ditzan haiek behar-beharrezkoak diren kasu eta egoeretara, zerbitzua baliabide berekien bidez ematea ezinezkoa denekoetara, baliabide publikoak optimizatze bide guztiak agortu ostean.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeko kideei hileroko helaraz diezaien itxarote-zerrenden jarraipen-txosten xehakatu bat, espezialitatez espezialitate eta muntako datuak jasotzen dituen, bai eta jada ezarrita dauden eta ezarri doazen neurrien inpaktuaren analisia ere."

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri eraginkorrak har ditzan, etxeko langile gisa lan egiten duten pertsonak abusuzko jardunbideetatik babesteko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri eraginkorrak har ditzan, etxeko langile gisa lan egiten duten pertsonak abusuzko jardunbideetatik babesteko.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri eraginkorrak har ditzan, etxeko langile gisa lan egiten duten pertsonak abusuzko jardunbideetatik babesteko, eta mekanismoak eta prozedurak ezar ditzan kontra-

tuak, kexak, abusuak eta iruzurrezko jardunbideak ikuskatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena, etxeko langileei buruzkoa, berrets dezan, eta Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu zeinek bere eskumenen esparruan aplikatu eta gara dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du lan arloko legeria alda dezan, etxeko langileen araubidea araubide orokorarekin parekatzeko.”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta etxeko langileen lan duinari buruzko 201. Gomendioa berrets ditzan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta etxeko langileen lan duinari buruzko 201. Gomendioa berrets ditzan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du luzamendurik gabe berrets ditzan LNE-Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena eta etxeko langileen lan duinari buruzko 201. Gomendioa.”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Ebro ibaiaren eta bere ibaiadar Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares, Queiles eta Odrónen ibilguen egiazko egoerari buruz.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Ebro ibaiaren eta bere ibaiadar Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares, Queiles eta Odrónen ibilguen egiazko egoerari buruz”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan xehakatu bat egin dezan, zuzenean nahiz Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin koordinaturik, Ebro ibaiaren eta bere adarren (Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares, Queiles eta Odrón) egoera errealarari buruz. Azterlan horretan ibai horien zolen eta babes-lubeten egoeraren deskribapen bat jasoko da.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezko zuzemenak egiten jarrai dezan, Ebro ibaiaren kudeaketan zeresana duten erakundeek –gaur egun Ebro ibaiaren erdiko tarte koordinatzeko Batzorde Teknikoa osatzen dutenak– elkarrekin bilera egitea ahalbidetzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ebro ibaiaren Foroa dinamiza eta horren funtzionamendu zuzena eta etengabea berma dezan, eta, arlo horretan eta ikuspegi global batekin, gaur egungo egoera zehatz dadin, behar diren azterlanak egitea proposa dadin eta balizko konponbideak iradoki daitezkeen aurki daitezkeen arazo guztietarako”.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak tortura baztertzen du eta Espainiako Gobernua premiatzen du salbuespenezko legedia, atxiloketa inkomunikatua eta babesgabetasun-egoerak ahalbidetzen dituen, indargabetu dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko maiatzaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak tortura baztertzen du eta Espainiako Gobernua premiatzen du salbuespenezko legedia, atxiloketa inkomunikatua eta babesgabetasun-egoerak ahalbidetzen dituen, indargabetu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak erabat baztertzen ditu tortura-jardunak, eta Espainiako Gobernua

premiatzen du atxiloketa inkomunikatua eta babesgabetasun-egoerak ahalbidetzen dituen salbuespenezko legedia indargabetu dezan eta, betiere, atxilotuen eskubide eta berme guztiak errespetatzen direla ziurta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu zenbait erakundek –adibidez, Amnesty International-ek edo Tortura saihesteko Europako Batzordeak– argitaratu dituzten txosten ugariak, baita Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiako Estatuaren aurka jaulkitako zigor-epaiak ere. Alde horretatik, Espainiako Gobernua premiatzen du Torturaren aurkako Itunean ezarritako printzipioak aintzat har ditzan eta Strasbourgeko Auzitegiaren

doktrina errepikatua, tortura-salaketa guztiak zorrotz ikertzea gomendatzen duena, bete dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die torturak eta tratu txarrak jasan dituzten pertsona guztiei, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du zenbait nafar herritarrek egindako tortura-salaketak iker ditzan eta torturen eta tratu txarren biktima izan direnen aintzatespena eta ordaina bultzatzen, adiskidetzea zein egoera

horiek ez errepikatzearen konpromisoa ahalbidetzeko asmoz.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du nahi duela berme prozesal guztiak errespetatzea inkomunikazioak eta tratu txarrek akusazioak baldintzatu ahal izan dituzten prozesu judizialean eta, bereziki, laster eginen diren epaiketei dagokienez.”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Defentsa Ministerioarekin negoziatzen dezan, Ezkabako gotorlekuaren jabea den aldetik, horren erabilera lagatzea edo dohaintzan ematea.**

### *HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2016ko apirilaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Defentsa Ministerioarekin negoziatzen dezan, Ezkabako gotorlekuaren jabea den aldetik, horren erabilera lagatzea edo dohaintzan ematea.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Defentsa Ministerioarekin negoziatzen dezan Ezkabako Gotorlekuaren erabilera lagatzea edo dohaintzan ematea.

2. Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikoak txostena egin ondoren, azter dezan Gotorlekua memoria historikoaren toki gisa izendatzea. Izendapen horrek gotorlekuaren aldeko interesa indartuko luke eta ahalbidetu lezake gaur egungo jabeak bermatu behar izatea horren iraunkortasuna, identifikazioa eta seinaleztapen egokia.”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da prostituzio- ra bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sare- an sar dadin Foru Komunitatea.**

### *HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2016ko apirilaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da prostituziora bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarean sar dadin Foru Komunitatea.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Foru Komunitateak bat egin dezan prostituziora bideratutako emakumeen eta haurren trafikorik gabeko hirien sarearekin.

2. Aldizkako kanpaina bat taxutu dezan, herritarrak sentsibilizatzeko eta konbentzitzeko prostituzioa genero-indarkeria eta emakumeen sexu-esplotazioa dela, eufemismoz «bezero» deitutakoa ikusaraziz, beti anonimotasunean eta sozialki justifikaturik dagoena, prostituitzaileak sozialki eta publikoki deslegitimatzea helburu, genero-indarkeria mota honen protagonista, arduradun eta konplize aktibo direnak.

3. Administrazio zentralarekin lankidetzan, eskaria desagerraraztera bidera dezan bere ekimena, prostituitzailea (bezeroa) eta proxeneta salatuz, jazarriz eta zigortuz, eta Gobernu zentralari exiji diezaion lehenbailehen ezar dezan araudi bat, Suedian bezala sei hilabetera bitarteko espetxe-zigorrekin eta isunarekin zigortuko dituen emakumeak sexu-merkataritzarako erosten dituzten gizonak.

4. Jarrai dezan Suediako araudiaren eredua, halako moldez non bere ekimena ezein kasutan ez duen bideratuko prostituitzen diren emakumeen aurka, ez eta haiak zigortzera edo zehatzera; aitzitik, funtsak ezarriko ditu bizibide hori utzi nahi duen edozein prostitutaentzako gizarte zerbitzu integraletarako, prostituzioa utzi nahi duten emakumei laguntzeko.

5. Apustu egin dezan, halaber, zergatien prebentziorako esku-hartzearen alde, ezen ez ondorioen errepresioaren alde, Gobernu zentralari exijituz lan-merkatuaren prekaritatea eta lan-merkatuan bizi diren esplotazio-baldintzak desagerraraz daitezzen, horien eraginez prostituzioa baita, zenbaitetan, zorrak ordaintzeko edo familia mantentzeko modu bakarra. Eta Gobernuak, sexuaren industriatik jasotako zergetatik etekina atera ordez, industria honen ondasunak bahitu ditzan, eta prostituzioan diharduten emakumeen etorkizunean inberti ditzan, baliabide ekonomikoak eta alternatiba errealek emanez.

6. Ez Nafarroako Gobernuak ez Foru Komunitatearen esparruko ezein administrazio publikok ere ez dezan balia prostituzio-iragarkiak dituen inolako hedabiderik –horren euskarria zein ere den– publizitate instituzionala egiteko, eta hedabide horiekiko lankidetzeta edo finantzaketa oro ken dezan.

7. Legea egiaz aplikatu dezan, pertsonen trafikoa jazarriz, bai eta mundu guztiak ezagutzen dituen errepide-putetxe eta klubetan lasai asko diharduten proxenetak ere”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



## **Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Ezkabako presoen hilotzak lurpetik ateratzen lagun dezan eta lan-mahai bat eratzea bultzatzea dezan, gotorlekua Nafarroari itzultzeko.**

### *HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2016ko apirilaren 20an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Ezkabako presoen hilotzak lurpetik ateratzen lagun dezan eta lan-mahai bat eratzea bultzatzea dezan, gotorlekua Nafarroari itzultzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Espainiako Gobernuari eskatzea bere gain har dezala eritasunen ondorioz hil eta Alfontso XII.a gotorlekuko hilerrian lurperatutako 85 preso-en senitartekoen bilaketa, eta bere gain har ditzala gorpuzkiak hobitik ateratzeko, DNAREN analisiak egiteko eta, kasua bada, gorpuzkiak garraiatzeko gastuak.

2. Espainiako Gobernua premiatzea ekin diezaion, halaber, eritasunen ondorioz hil eta Antsoaingo Zendeako hamabi hilerrietan lurperatutako pertsonen familiak bilatzeari.

3. Nafarroako Gobernua premiatzea lan-mahai baten eraketa susta dezan, non parte hartuko duten, Nafarroako Gobernuaz gain –Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez–, eskualdeko udalek eta oroi-menaren aldeko elkarteek, helburua izanik gotorlekua eta haren ingurua zaharberritzea eta berreskuratzea Memoria Historikoaren gune gisa eta aisiarako naturagune gisa.

4. Espainiako Gobernuari exijitzea gotorlekuko hilerria, “botilen hilerria” izenarekin ezaguna, txukundu dezan eta panel bat jar dezan, preso heriotzaren inguruabarrei buruzko argibideak eta alderdi horretan lurperatu zituztenen datu pertsonalak emanen dituen.”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizainek sendagaiak erabiltzeari eta agintzeari buruzko foru dekretu bat egin dezan.**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2016ko maiatzaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erizainek sendagaiak erabiltzeari eta agintzeari buruzko foru dekretu bat egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean aurkez dezan erizainek medikamentuak erabiltzeari eta agintzeari buruzko foru dekretu bat, egungo legegintza-esparruan segurtasun juridikoa emanen duena eta erizainek arlo horretan dauz-

katzen eskumenak garatuko dituen, eta dekretu hori osasungintzako kolektiboarekin adostuta taxutu dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

– Indargabetu dezan urriaren 23ko 954/2015 Errege Dekretua, erizainek gizakientzako medikamentuak eta osasun-produktuak agintzea, erabiltzea eta baimentzea arautzen duena.

– Prozesu berri bat ireki dezan, ahalik eta adostasun handienarekin, erizainek medikamentuak erabiltzea eta agintzea arautzen duen errege dekretu bat egiteko”.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Altsasuko Josefina Arregui Klinika espezializatuaren funtsezko lana aintzatets dezan.**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2016ko maiatzaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Altsasuko Josefina Arregui Klinika espezializatuaren funtsezko lana aintzatets dezan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, Nafarroako Parlamentuak egin berri duenez, aintzatets ditzan Altsasuko Josefina Arregui klinika espezializatuak erreferentzia zentro gisa gauzatzeko funtsezko lana eta berma dezan klinikak Osasunbidea-Nafarroa-

ko Osasun Zerbitzuaren sare publikoaren barnean behar duen egonkortasuna. Sare publikoaren barnean sartu ezean, gutxienez egungo itunean sakontzea bermatuko da, ezinbesteko baliabide horren bideragarritasuna bermatze aldera.

2. Epe ertain-luzera, Alzheimer gaixotasunak gero eta pertsona gehiagori eraginen die Nafarroan. Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du azterlan bat egin dezan, errealitate hori kontuan hartuta, eta Erriberan Ospitalegune bat sortzearen aukera azter dezan, Nafarroako herritar guztiei ekitea eta irisgarritasuna bermatzeko asmoz.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Ebro ibaia garbitzeko beharrezkoak diren baimenak bizkor ditzan, ikusita Tuterako ureztatzaile-elkarteek bizi duten arazoa.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

María Carmen Segura Moreno andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Ebro ibaia garbitzeko beharrezkoak diren baimenak bizkor ditzan, ikusita Tuterako ureztatzaile-elkarteek bizi duten arazoa.”

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2016ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko apirilaren 22ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premia-  
tzen dira Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuaren egoera  
konpontzera bideratutako neurriak har ditzaten.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Ana Beltrán Villalba andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Udala premia-tzen dira Andre Maria Erregina auzoko txabola-kokalekuaren egoera konpontzera bideratutako neurriak har ditzaten."

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2016ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2016ko maiatzaren 3ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

